

Turismoa eta gu

Zeruko Argia, 678. zk., 1976-03-07: 6.

Pexeta berriak ba omen du alderdi onik.

Eta ez dira betiko "bai-jauna" k esaten asi diren guziak gezurrezkoak; esportazioak errazten dituela bixtan da, eta iparretik etorriko diren turistei egoan eguzkiak duen lekua zabalduko diela ere bai.

Gure lagun-urkoaren poxa gurea balitz bezala artzea kristau onaren birtutea da, noski.

Baina, eta gure erriak: noiz asi behar du turismoaren bidez lortzen diren gogo-
aberastasuna eta atsedeen gozoa ezagutzen? Zera gertatzen bait da: orain, hemengo
diruaren ahultze honekin, euskotarrok munduan zehar noizpait turismoa egiteko
amestu genituenak oraindik urrutirago uxatu dizkigutela.

Bejondeiela turistei!

Baina beti gainontzekoek eta folklore usai batean deskubrituak izan garenez, bada
garaia geurok ere mundua geurez pixka bat ezagutzen asteko.

Turismoa ongarria da, noski, baina baita guretzat ere.